

Euskal alfabetatzearen historia zirriborratuz

Dionisio Amundarain

Lerrook eskatzean, pozik eman dut baietza. Komeriak lana borobiltzeari ekitean izan ditut: alde batetik, ikuspegi zehatz samarra eman nahia eta datuak falta askotan, eta gauzak behar bezala matizatzeko, lerro-ilara laburregira mugatua, bestetik. Baina, tira.

Hiru puntuotara bilduko dut lan-txoa:

- I.—Alfabetatzearen pausoak kronologikoki.
- II.—Zer da alfabetatzea.
- III.—Alfabetatzeko metodologia eta metodoak (eta testuak).

I. ALFABETATZEAREN PAUSOAK KRONOLOGIKOKI

Badio nonbait J. M. Odriozolak historia aurkezteko erarekin ez nagoela konforme, eta halaxe iruditzen zait, esaterako, Alfabetatzearen historiaren hasiera aurkezteko erarekin.

Alfabetatzeari buruz, honela dio aipatu idazleak berak: «Beraz, hasera haseratik, ikusten dugu Euskaltzaindia su-jetu bezala» (1). Beste hau emango nuke egiazkoagotzat: «Alfabetatzea herri-tik sortu da, eta hain egoera eta arazo ezberdinei erantzun nahiz, Euskal Herrian zehar. Askotan esan ohi denez,

udaberriko zizak jaiotzen diren gisa, hor-hemenka» (2). Egia esan, 1966an Euskaltzaindiak eskuhartu zuenerako, bazegoen bazterretan kezkarik eta praktkarik adinekoen alfabetatzean.

1950-1960. hamarkadaren hasieran, hilberria den Zipitria Elbira ibilia zen Lazkaoko Beneditarren monastegian fraile gazteen alfabetakuntzan, esaterako. Geroxeago, 1962 inguruan fraile beroietako batek Lazkaoko jende-sailtxo bat alfabetatzeari ekin zion. Eta abar.

Dena den, Rikardo Arregi izan zen alfabetatzeari bultzada handia eta berezia eman ziona. 1966ko urtarrilean, euskaldunen alfabetakuntzari buruzko proposapena azaldu zitzaion Euskaltzaindiari «Jarrai» antzerki-taldearen izenean. Eta urte bereko otsailean Bartzorde hau osatu zuten: Joan San Martin, Patxi Altuna, Mikel Lasa, Iñaki Beobide eta Rikardo.

Berehala eta buru-belarri ekin zion lanari, batez ere, Rikardok. Baina, 1969an istripuz hil zitzaigun, eta lan-gile bipila galdu zuen Alfabetatze-lanak.

Kanpainak, noski, aurrera jarraitu zuen. Baina, Euskaltzaindiari lotuta egoteak bere loturak eta mugaketak ezarri zizkion: «Arrasaten izan genuen

batzar eztabaidatsu honetan ere Euskaltzaindiaren Alfabetatzeak dituen mugak jartzen dira... zenbait jende mindurik atera zen batzarre hartatik» (3). Gipuzkoako indarrak asko sakabanatu ziren orduan. Bizkaian indar handiz jarraitu zuten halere.

Arabian ez zen sortu alfabetakuntza mugimendurik. Araban ezer gutxi eginen da eta egin daiteke alfabetatze mailan» (4). Euskaldunik ez zegelako, noski.

Nafarroan ere ez ziren hasi oso berandu arte. Lehenik, Sakanan eta Sei Haranak-en hasi ziren lehenengoz, 1975-76. ikasturtean, bi eskualdeok Gipuzkoako 9 eskualdeekin elkaturik ageri dira, Sakanan 10 ikasle eta bestean 41 ikasle direlarik.

Iparraldeko mugimenduaz aurkitu dudan lehen aipamena, honako hauxe da: «Aurten (1975-76) lehen aldikotz hasi dira alfabetatzeko ikastaldiak Baionako Erakustokian... Agian bizpahiru urteren buruko, beste hiri eta herri zenbaitetara hedatuko bide da, ikastolak egin diren bezala» (5).

Dena den, hasieran haur txiki-txikia zena haundituz joan da. Lehen urteetan, euskalduntzea bera baino garrantzizkoago izan zen alfabetatzea. Gero euskalduntzeak hartu zion gaina. Badirudi, azken urte hauetan, beste hainbat mugimendu bezala, zertxobait epeldu egin dela alfabetatze mugimendua. Halaz guztiz, esango nuke, aztarren batzu barruntzen direla dagoeneko gure gizartean alfabetatzearen udaberritzearen alde.

II. ZER DA ALFABETATZEA

Alfabetatzeak, Euskal Herrian, Kuban eta Brasilen ez bezalako itxura du. Euskaldunak badaki irakurtzen eta idazten, baina erdaraz; euskaraz analfabetoa da.

Rikardo Arregirentzat, alde batetik eta lehen mailan, euskal analfabetoa euskaraz irakurtzen eta idazten jartzea

da alfabetatzea; bestetik, ordea, honela diosku: «Alfabetatzea irakurtzen erakuste hutsarekin ez da bukatzen. Hori lehen pausoa besterik ez da, eta pauso hori kasikan alferrikoa izango da ondorenean beste batzu ez baldin badatoz». Bere egin zuen Rikardok Paulo Iztuetaren baieztapen hau ere: «Gaur hizkuntza bateko semeak, iraupenerako, beharrezko dute kultura, beharrezkoa beren hizkuntzan irakurtzen eta idazten jakitea».

Delako kultura hori mugatzean edo zehaztean zetzan (eta datza) zailtasuna. Eta 1971ko batzarrean, Arrasaten, izan ziren istiluak horretatik zetozen: Euskaltzaindiak bere erara mugatu nahi zuen ikasgelako erabilgaia, eta lanean ari ziren irakasleek, hau da, arazoa hurbil-hurbiletik zekusateneke, beste giro bat eta beste behar bat ikusten zuten herrian eta ikasgelan.

Dena den, Euskaltzaindiak honela mugatu zuen Alfabetatze Batzordearen egitekoa 1972ko ekainaren 30ean, Donostiako Batzarrean: «...2. Batzorde honen xedea hauek dira: euskeraz irakurtzen eta idazten irakastea. Horrekin batean, euskeraren inguruko gaiak sar daitezke: euskal literatura, euskeraren batasuna, euskeraren geografia eta dialektologia... Bestelako gaiak ez dira Euskaltzaindiaren Alfabetatze Batzordearenak...»

Handik laster, Euskaltzaindia «D» titulua ematen hasi zen, eta hein handian horretxek mugatu zuen Alfabetatzearen funtsa. Jendeak titulua nahi du, eta horretarako eskatzen diren gaietan trebatu behar.

Halaz ere, bide hertsi horren aurkako ahotsik ez da falta. Ekitzeta-ren hitzok lekuko: «Bai, euskaraz egitea ere, iraultzaile omen... eta lan horren bidez herriaren burrukan gero eta parte haundiago eta azkarrago bat izatera iristea» (6).

Gaur, «Gaitasun Agiria» delakoak arras markatuko du, noski, alfabetatzearen xedea, eta bide onetik, nik uste.

Badirudi metodologia bizirako bidea seinalatzen duela honek.

1971ko giro estu eta itogarria joana da. Ordukoak ezin juzka gaurko munduaren egoeratik. Gaurko mugaketa, ikasgelan dituzun ikasleen iritzi desberdinak, eta askotan aurkakoak, kontutan hartu beharrak egingo du: iritzi politikoak direla, sozialak, etikoak, moralak, etab. Baina, dudarik gabe, ezin muga daiteke alfabetatzea irakurtzen eta idazten irakaste hutsera.

Badirudi ausardia haundiegia ez bada horrelako definiziotan sartzea, alfabetatzearen xedea honela defini genezakeela: OHOa bukatua lukeen gaztetxo baten mailan, edozein gaitaz irakurtzen eta idazten ikastea, baina gaiaren edo edukiaren ezagutzaren edo esperientziaren sakontasunean gaztetxoaren eta adinekoaren arteko aldea kontuan delarik.

III. ALFABETATZEKO METODOLOGIA ETA METODOAK (ETA TEXTUAK)

Hasierako metodologia, alfabetatze mailan, gramatikari erabat lotua egon zen. Halaxe jokatu zuen Elbira Zipitria aintzindariak Lazkaon eman zituen irakatsaldietan, esaterako. Halaxe Beasainen eman zirenetan ere 1965-66. ikasurtean: «Gramatika ikasketa edo... izana omen zen» (7).

Gramatika-bide horren aurka jaiki zen R. Arregi. «Metoduak euskal literatura zaharreko eta gaur egunekoaren 24 zati hartzen ditu oinharri bezala» irakurtzen dugu txosten batean (8). Egia esateko, bide bikoitza hartu zen: batetik, gramatika-irakaspenak, eta bestetik, textuetan murgiltzea; esan bezala, «D» titulua zela eta, gramatika-bidearena nahiko nagusitu zen arte. Textu-mailan, bestalde, batetik Euskaltzaindiaren irizpideari jarraituz bildutakoak aipatu behar dira, eta bestetik, arazo sozialak eta beste gehiago lantzen zizutenak.

Horrela sortuak dira hainbat eta hainbat idazki, inprimatu nahiz multikopiazko.

1971n LEHEN URRATSAK liburuskara argitara zen, gramatika-puntu batzuek emanez. Lan honetan, Jose Bernardo Jauregi, Mikel Arregi, Andoni Sagarna, Joxe Mari Aranburu etab. ari izan ziren. «Bai tamalgarria izan zela, Alfabetatzeko talde hura galtzea» irakurtzen dugu Anaitasuna-n (9). Laster agortu zen gipuzkoarren argitalpen hura, eta bizkaitarrek, bide beretik, multikopiaz atera zuten beste lan bat 1972an.

Garai beretsuan, Juan San Martin eta Serafin Basaurik HEGATSEZ eman zuten argitara; garaiko euskal idazleen idazlan laburren antologia.

Eusebio Osak bide konprometitua goari heldu zion, eta 1972an PEDAGOGIA ETA GIZARTEA izeneko liburua argitara zuen. Beste lan bat ere eman zuen argitara multikopiaz. Garai batean eskuartean erabili izanaz gogoratzen naiz, gaur haren arrastorik ez badut ere; lan hau aurrekoa baino zuzenkiago zuzendu zuen Alfabetatze lanetarako; ideologikoki, alabaina, aurrekoaren bidetik zihonan.

Geroztik, hainbat eta hainbat lan ikusi dugu. Garrantzizkoena, dudarik gabe, «Alfabetatzen-1» izan zen; 1975ean Bizkaiko Alfabetatze taldeak argitara emana; Bizkaiko eta Gipuzkoako Alfabetatze taldeek hartutako asmoen fruitu izan zen; bigarrena eta hirugarrena ere ateratzekotan gelditu ziren, baina asmo hutsetan geratu. Hirugarrena prestatzekotan Gipuzkoakoak gelditu ziren; baina, horren ordez, J. M. Odriozolak, Gipuzkoako orduko arduradunak, multikopiaz eta pretentsio haundirik gabe, lan txiki bat bota zuen jendaurrera bere kabuz.

Goiherriko Euskal Eskolak ere eman zuen argitara lantxo bat 1979an: «Alfabetatzeko-I. Astez Aste». Bigarrena ere ateratzeko asmoa hartu zuten, baina horretan gelditu.

Metodologiari dagokionez, aipaga-

rriena, inondik ere, AEK-k argitara emaniko URRASPIDE 5 dugu. Argitasun haundia dakar alfabetatze munduan lanean hasi nahi duenarentzat. Esan daiteke, EGA delako titulurako Hezkuntza Sailak berrikitan eman dituen azterketa-ereduetan AEKren lan horren arrasto asko ageri dela.

Bukatzeko

Euskalduntze mailan bezalaxe, alfabetatze mailan ere urrats asko eta haundiak eman ditugu. Geure lehen pausoak alfabetatze-lanean aspaldi hartan 1970. inguruan, eman genituenok optimismoz eta pozik dakusagu gaurko giroa. Zenbait jende, soziologoak barne, euskaren egoeraz hiletak jotzen ikusten dugularik, harritu ere harritu egiten gara. Ordutik hona —kalitate mailan— horrelako aldea egin bada, zer ez da egiten ahal ondorengo urteetan?

Noski, mirari-sinesleen etsimendua gaindituz, lanerako deia egin behar ezker-eskuin. «Hi bekataria» bazter utzirik, nork bere burua euskaraz eta euskal senaz jantziagotzeari ekin behar. Hitz batean, euskal alfabetatzearen —eta euskalduntzearen— predikari eta eragile suhar bihurtu behar. Hor dagoke gure euskararen berreskuratzearen giltza. «Euskaldun jende guztiari begie-

tatik eta belarrietatik sar dakion alfabetatu beharra» (10), horrexek beharko luke izan euskaldun guztion leloa, irrintzia eta borrokarako deia. Hebraieraren begiz begiko esperientziak areagotu egin dit uste hau: lanaren, ekinaren, borrokaren beharra da hizkuntza bat aurrera ateratzeko; baldintza horrenpean euskararen loratzea eta bizitza ez lirateke dudamudakoak.

Eskuartearen duzun idazki hau, irakurle, eragile eta bultzatzaile gertako ahal zaizu euskarari atxikimendu hertsienaz lotuz, Euskal Herriaren etorkizuna zenure esku bait zenu bezala jokatzeko!

(1) *Anaitasuna*, 1976-2-15, 8. or.

(2) Ekitzeta in *Euskarri* aldizkaria, 4. zenb., 8. or. (Aldizkari hau Gipuzkoako Gai eskolen Elkarteak argitara zuen; 1975eko urtarrilean lehen aldea).

(3) *Anaitasuna*, 76-2-15, 6. or.

(4) Juanjo, in *Anaitasuna*, 76-2-16, 12. or.

(5) *Anaitasuna*, 76-1-15, 12. or.

(6) *Zabal* aldizkaria, 16. eta 18. zenb. Artikulu bi horiek *Euskarrin* ere argitara ziren (4. zenb. eta 5. zenb.).

(7) Andoni Sarriegi, in *Euskarri*, 3. zenb., 17. or.

(8) «Euskaldunen Alfabetatze Kanpaina. Rikardo Arregi: - Euskaltzaindikoa; - Euskaltzaindiko Alfabetatze Batzordearen sekretarioa», 18. or.

(9) *Anaitasuna*, 1976-2-15, 6. or.

(10) *Urraspide* 5, 6. or.